

Informazio-orria

Ur-aprobetxamenduen erabilera pribatiborako eskaera

Agiri honen xedea da, batetik, eskatzaileari jakinaraztea zer izapide egin behar duen ur-jabari publikoa osatzen duten lurpeko uren edo euri-uren erabilera pribatiborako eskubidea lege-xedapen bidez eskuratzeko, eta, bestetik, adieraztea zer datu edo agiri aurkeztu behar duen horretarako.

Eskatzaileak, izan ere, deribatutako bolumenak kontrolatzeko sistema bat instalatu beharko du ur-aprobetxamendu orotan (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-0003243/es>), eta, hala badagokio, uraren kanonarekin lotutako betebeharrak bete beharko ditu (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-0003621/es>).

1 Baimena nork eskatu behar duen

Lur baten barruan dauden iturburuetatik datozen urak lur horretan erabili nahi dituen eta lurpeko urak lur horretan aprobetxatu nahi dituen edozein pertsonak edo entitatek, betiere urteko bolumena 7.000 metro kubikotik gorakoa ez bada. Bai eta lur horren gainean eroritako euri-urak erabili nahi dituenak ere.

2 Nola eta non eskatzen den

Bete eskabide-eredua, han jasotzen baita zer datu eman behar diren zer agiri aurkeztu behar diren espedientea izapidetzeko. Eskabidea telematikoki bete dezakezu URAREN webgunean eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, edo aurrez aurre egin dezakezu izapidea (pertsona fisikoak bakarrik), eskabidea betez eta eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuz, hemen:

- Arroen egoitza nagusiko edo bulegoetako sarrera-erregistroetan:

1 Vitoria-Gasteiz

- Boulevard eraikina
- Gamarrako atea 1 A, 11. solairua
- 01013 Vitoria-Gasteiz

2 Bilbo

- Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua.
- 48011 Bilbo

3 Donostia

- Intxaurren 70, 1. solairua
- 20015 Donostia

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotzen diren lekuetan (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf>).

3 Jabari Publiko Hidraulikoa eta Zaintza Eremua

Uren Legearen testu bateginak (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2001/BOE-A-2001-14276-consolidado.pdf>) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (<https://www.boe.es/buscar/pdf/1986/BOE-A-1986-10638-consolidado.pdf>), zehazten dute zein diren jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak: ibilguak, urtegiak, etab.

- Honako hauek osatzen dute **Jabari Publiko Hidraulikoa (JPH)**:

- Ur kontinentalak, bai azalekoak bai lurpeko berriztagarriak, kontuan hartu gabe berritzeko denbora.
- Korronte naturalen ibilguak, izan jarraituak edo etenak.
- Laku eta aintziretako hondoak, eta ibilgu publikoetako azaleko urtegien hondoak.
- Akuiferoak, ur-baliabideen xedatze- edo eragin-egintzen ondorioetarako.
- Itsasoko ura gatzgabetzetik datozen urak.

Uren Legearen testu bateginak (ULTB) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (JPHE) ezartzen duten bezala, lege-xedapen edo administrazio-emakida bidez eskuratzen da jabari publiko hidraulikoaren erabilera pribatiborako eskubidea, erabilera kontsuntibo izan ala ez.

Uraren Euskal Agentziaren eskumena da jabari publiko hidraulikoari dagozkion baimenak eta emakidak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetan.

4 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ahal dela, dokumentazioa euskarri digitalean eta .pdf formatuan aurkeztuko da, elektronikoki sinatuta.

1. Kasu guztietan aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra:

- ☐ Eskabide-eredua eta fitxa (eskabide-ereduari erantsita daude), behar bezala beteta.
- ☐ Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua. Baimen-eskabidearen sinatzailea interesduna ez bada:
 - a. Ordezkaritza bidez izapidetzen duten pertsona fisikoek notario-ahalorde baten bidez egiaztatu beharko dute ordezkaritza, edo, bestela, fede-emaila publikoaren aurrean sinatutako ordezkaritza-akta baten bidez. Bi aldeek sinatutako idazki bat ere onartuko da.
 - b. Pertsona juridikoen kasuan, berriz, beharrezkoa izango da notario-ahalordea eta erakundea eratzeko eskritura aurkeztea, bai eta ordezkaritza eskabidea sinatzea ere.
 - c. Badago aukera ordezkaritza alta emateko (espediente mota bera izapidetzeko), Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroaren bidez [Registro electrónico de apoderamientos - Sede electrónica - Euskadi.eus](https://www.euskadi.eus/registro-electronico).
- ☐ Obrak eta instalazioak deskribatzeko eta erabilera justifikatzeko memoria.
 - Honako hauek biltzen dituen adierazpena: eskatutako urteko baliabide hidrikoaren zuzkidura, bat-bateko gehieneko emaria (l/s), urteko gehieneko bolumena (m3), hilabeteko gehieneko bolumena (m3) eta deribazioaren helburua.
 - Deribaziorako egindako obren eta gainerako instalazioen deskribapena.
 - Hurbil (gutxienez 200 m-ko erradioan) dauden kutsadura-fokuak (erregai-tangak, ongarria edo substantzia arriskutsuak biltzen dituzten deposituak, putzu septikoak, etab.).
 - Putzuen kasuan:
 - Putzuaren kokapena.
 - Enpresa zulatzailea.
 - Zulaketaren sakonera eta diametroa, eta hodiaren diametroa.
 - Hodi piezometrikoa.
 - Ur-ponpa instalatzeko sakonera.
 - Zulatzeari zeharkatutako zutabe litologikoa.
 - Maila piezometrikoa eta baliabide hidrikoa ateratzeko erabiltzen den akuiferoa edo akuiferoak.
 - Hoditeria artekatua eta itsua instalatua duten tartearak.
 - Zundaketaren aurreiragazkiaren ezaugarriak.
 - Hormen zigilatzea.
 - Zigilatzeak, hartxintzarrez betetzeko eta abarretarako erabilitako material motak.
 - Putzuarekin lotutako azpiegitura-multzoren deskribapena eta ezaugarriak (instalatzeko ur-ponparen ezaugarriak, etab.).
 - Ur-emariaren neurketen eta entsegu hidraulikoen emaitzak, putzuaren parametro hidraulikoak zehazten dituztenak helburu honekin: putzuak ingurunean duen inpaktua zehaztea.

- Iturburuen kasuan:
 - Hargunearen deskribapena (dimentsioak, materialak eta ezaugarriak).
 - Emaria hartzeko metodoa: ponpaketa edo grabitate bidez.
 - Sistemaren deskribapena.
 - Ur-emarien neurketaren emaitza.
- ☐ Lurzatiaren katastroko planoaren kopia: Planoan, adieraziko da zer obra egin behar den eta, hala badagokio, zenbatekoa den azalera ureztagarria.
 - Plano edo krokis bat, putzuaren kokapena identifikatzeko aukera emango duena:
 - Aprobetxatu nahi diren iturburuen edo putzuen kokapena zehaztuko da, honako distantzia hauek adieraziz: haien artekoa, eta haietatik beste ur-hargune batzuetara, korronte natural edo artifizialek, eraikinetara, bideetara, meatzeetara eta lehendik dauden beste instalazio batzuetara.
 - 20 metro baino gutxiagoko distantzia izanez gero, lurzoruaren hirigintza-kalifikazioa egiaztatu beharko da, udal eskudunak emandako ziurtagiri baten bidez.
 - Honako hauen kokapena adieraziko da: kontrol bolumetrikoko sistemarena, eroanbidearena, gainezka bide posibleena eta andelena edo kutxatila⁽ⁱ⁾.
- ☐ Bolumenak kontrolatzeko sistemaren kokapena, UTM 30N ETRS89 koordenatuak emanda.
- ☐ Homologazio-egiaztagiria, fabrikatzaileak emana, egiaztatzen duena kontrol bolumetrikoko sistemak kontrol metrologikoko zehaztapenak gainditzen dituela⁽ⁱ⁾.
- ☐ Kontrol bolumetrikoko sistema instalatzeko ezaugarri teknikoak eta jarraibideak biltzen dituen katalogoa. Adierazi beharko da zein den aukeratutako sistemaren diametro nominala edo kalibrea⁽ⁱ⁾.
- ☐ Kontrol bolumetrikoko sistema instalatuta dagoen kasuetan, aurrekoen gainera, honako hauek aurkeztu beharko dira⁽ⁱ⁾:
 - Hargunearen eta neurgailuaren argazkiak (hor, argi eta garbi irakurri behar dira kontagailuaren marka, modeloa eta serie-zenbakia, bai eta irakurketa ere).
 - Kontrol bolumetrikoko sistemaren instalazioaren krokis kotatua, honako hauetara dauden distantziak jasoko dituen: ponpaketa-multzoetara, balbuletara, iragazkietara, ukondoetara, "T" ra, hodien sekzio-murrizketetara eta abarretara.

2. Hornidurarako erabiliz gero:

- ☐ Administrazio eskudunaren osasun-txostena, autonomia-erkidegoko dagokion zerbitzuak emana (ura giza kontsumorako baldin bada).
 - Ura edangarri bihurtzeko sistema deskribatzea eta justifikatzea, hala dagokionean, osasun txosten baten bidez.

3. Industria-erabileraren kasuan:

- ☐ Adierazi beharko da ura zertarako erabiliko den (industria-prozesuak, hozte-sistemak, garbiketa edo beste batzuk). Adierazi beharko da, halaber, jarduera zer egunetan izango den funtzionamenduan.
- ☐ Ura efizientziaz erabiltzeko teknika erabilgarri onenen azterketa.

4. Erabilera geotermikoaren kasuan:

- ☐ Zirkuitu irekian edo itxian egingo den zehazten duen proiektua. Industria-erabilera bati lotuta badago, erabilitako klimatizazio-sistema ere jasoko da.
- ☐ Zirkuitu itxien kasuan:
 - Proiektuaren memorian, gutxienez, honako hauek adierazi beharko dira: kokapena, lanak hasteko aurreikusitako data, sakonera, zundaketa-kopurua, aurreikusitako zigilatze mota, sustatzailea, zulaketa-enpresaren eta lanen kargura dagoen instalatzailearen izen sozial osoa, bai eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia ere.
 - Zulaketak ingurunean kutsatzaileak sartzeko saihesteko moduan diseinatu eta burutu beharko dira.
- ☐ Sistema irekien kasuan:
 - Kontuan izan beharko da, oro har, erabilitako ura atera den akuiferoan bertan injektatu beharko dela.
 - Ibai- eta akuifero-sistemaren balantzeari eragiten ez badio eta behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan bakarrik onartu ahal izango da ibilgura isurtzea.
 - Berariazko baimenik izan ezean, ur-injekzioa gehienez 6 °C-ko jauzi termikoekin egingo da.

- Zulaketak ingurunean kutsatzaileak sartzea saihesteko moduan diseinatu eta burutu beharko dira.
- Zulaketei kontrol eta jarraipen hidrogeologikoa egingo zaie, zeharkatutako akuiferoen garrantzia eta izaera zehazteko. Era berean, zigilatzea egiteko, iragazkortasun baxuko produktuak eta produktu geldoak injektatuko dira (bentonita-zementuzko esnea, bentonitazko pelletak edo antzekoak), eraztun itxurako gune osoan zehar.
- Azterketa hidrogeologikoa, putzuaren parametro hidraulikoen bidez hark ingurunean duen inpaktua ebaluatzen duena.

5. Nekazaritza eta abeltzaintzarako erabiliz gero:

- ☐ Balantze hidrikoa, baldin eta Plan Hidrologikoko zuzkidura estandarrak erabiltzen ez badira (35/2023 Errege Dekretua, urtarilaren 24koa, Demarkazio hidrografikoetako plan hidrologikoen berrikusketa onartzen duena).
- ☐ Lurzoruaren katastroko planoaren kopia: azalera ureztagarria.

(i): Agindu hau betez: Agindua, 2017ko apirilaren 24koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, EAEko barne-arroetan jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduetatik ateratako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak arautzen dituena.

5 Izapidetzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, izapide hauek egingo dira:

1. Datuak egiaztatzea, dokumentazioa aztertzea eta, behar izanez gero, dokumentuak eskatzea.
2. Nahitaezko txostenak edo interesgarritzat jotzen direnak eskatzea.
3. Txosten teknikoa.
4. Entzunaldia ematea pertsona edo entitate interesdunei, hala badagokio.
5. Ebazpena ematea.

Espedientea izapidetzen amaitu ondoren, Uraren Euskal Agentziak egokitzen jotzen dituen zaintza-, ikuskapen- eta egiaztapen-lanak egingo ditu, ebazpena betetzen dela bermatzeko eta jabari publiko hidraulikoa zaintzeko.

6 Ebazpenaren ondoreak

Ebazpenak amaiera emango dio hasitako administrazio-prozedurari.

Lege-xedapen bidez erabilera pribatiborako eskubidea emateak berekin dakar urtero uraren kanona ordaintzeko betebeharra, hala dagokionean.

Halaber, kontrol bolumetrikoko sistema instalatuta eta erabat erabilgarri eduki beharko da, ebazpenean ezarritako epean, eta deribatutako ur bolumenak erregistratu beharko dira, ebazpen horretan ezarritako moduan eta maiztasunarekin.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren aurrean, HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

7 Ebazteko epea

Uraren Euskal Agentziak gehienez **sei hilabete** izango du uraren erabilera pribatiborako eskubidea aitortzeko prozedura ebazteko.

Berariazko ebazpenik ez badago, inola ere ezin izango da ulertu baimena presuntzioz baietsi denik.